

Ignazio Garate **NEKAZARIA**

«Gurasoek erabaki behar dute baserria nori utzi»

AZKOITIKO APALZAGASTI BASERRIAN JAIO zen Ignazio Garate, 51 urteko nekazaria, eta bizi ere han bizi da. Ogibidea bertan aurkitu zuen, behiak zaintzen baititu esnea jetzi eta gero saltzeko. Bere ustez, baserria zein oinordekori utzi baserriaren jabeek erabaki behar dute, eta kezkatuta dago azken urteotan zatitu diren baserri eta nekazari lurrengatik.

■ **Zurea al da baserria? Zure gurasoen eskutik jaso al zenuen?**

Bai, nire jaiotetxean bertan bizi naiz, ni ez nintzen klinikan jaio. Bertatik ateratzen dut bizimodua, esne-behiekin; 39 behi buru eta 17 biga ditut. Bi egunetik behin 1.500 litro esne ematen dute.

■ **Noiztik ari zara baserria lanean?**

Hamasei urte inguru ibili nintzen lantegi batean lanean, baina gurasoak zahartu eta lantegia itxi zenean baserrira etorri nintzen, eta hemen daukat harrezkero nire ogibidea. Ezkondu ere baserrira ezkondu nintzen.

■ **Zenbat senide zarete? Zergatik gelditu zara zu baserrian?**

Hiru senide gara, ni naiz zaharrena. Anaia eta arreba bikiak dira. Arreba Elgoibarrera ezkondu zen, eta anaiari, berriz, ez zaio asko interesatu baserria. Gurasoek, gainera, ni nahi ninduten baserrirako, ni prestatu ninduten. Ezkongabe nengoela zer egin nahi nuen galdetzen zidaten behin eta berriz. Eta, egia esan, edozertarako prest nengoen.

■ **Diferentzia handia al dago zuk jaso zenuen baserriaren eta oraingoaren artean? Inbertsio handiak egin al dituzu?**

Orain hogeita hamar urte beste eraikuntza bat egin genuen, tarte horretan etxea berri eta duela hiru urte pabilioi berria egin nuen. Azpiegitura guztia esne-behiekin lanean jarraitzeko egin dut. Izan ere, ez dut ikusten baserritik bizitzeko beste ekoizpen produktiborik.

■ **Zein ari zarete baserrian lanean? Zein biri zarete?**


Andrea eta biok, semea ikasketak egiten ari da. Nire ama gurekin bizi da.

■ **Eta semeak jarraituko al du baserriarekin?**

Esaten diot orain eskolan segitu behar duela (18 urte ditu). Berak esaten duenez, prest dago baserrian hasteko edo beste edozertarako. Ikasten pixka bat jarraitu, eta gero, berak erabaki dezala edo baserrian gelditu edo kalera joan. Guk semeak baserrian jarraituko duen ilusioa dugu.

■ **Nolako egoeran dago nekazaritza? Merezi du jarraitzea?**

Lehen errazagoa zen, lehen nahikoa ziren 20 behi. Orain, berriz, 30 behar dira, eta Europa dela-eta kopuru hori gutxitxo ote den diote. Gainera, baserrian ezin da



orduari begira lan egin, ez dago ordutegirik.

Orain lotura handiagoa dago baserrian, baina orain urte batzuk baino kalitate hobea dute produktuek. Eta bizimodua garestitu egin denez, lan gehiago egin behar da horri aurre egiteko.

■ **Zure izenean al dago baserria?**

Ez, hori dena egiteko daukagu oraindik. Aita testamentua eginda joan zen, eta nik ez daukat presarik. Amak esaten dit, baina badaude horren aurretik egin beharreko beste kontu batzuk.

■ **Baina senideen artean ongi konpondu zineten zu baserrian gelditzea erabakitze orduan...**

Bai, hala da. Nik jarraituko nuela adostu genuen.

■ **Hori, ordea, ez da baserri guztietan gertatzen.**

Ez, eta arazo latza da. Azken bi urteotan gertatzen ari dena izugarria da. Familia asko arazo latzetan sartu dira, Urola bailaran behintzat bai. Gertatu izan da norbait gizaldi osoa baserri batean lanean aritu eta oraindik berea ez izatea. Eta erabaki beharra dago baserriarekin jarraitu behar dugun edota Ameriketara bezala -eta orain gertatzen ari denari jarriki- larre guztiak etxetik beteko ote ditugun.

■ **Baserria oinordeko bakarrari uztearen alde egongo zara, beraz.**

Bai, garrantzitsua iruditzen zait. Baina, zoritxarrez, azken urte hauetan baserriak zatitu eta iskanbila ugari izan da. Bailara

honetako baserri batera Ertzainak etorri dira, senideen arteko desadostasunak zirela-eta hango ganadua eta abar ateratzera. Nik galdetzen dudana hau da: orain pasatzen ari dena orain urte batzuk pasatu izan baltz, zer gertatuko litzateke? Ez litzateke baserririk geldituko. Serio hartu beharreko kontua da, Euskal Herrian baserriak ikusi nahi baldin baditugu, behintzat.

■ **Eta oinordekoetatik nork merezi du baserrian gelditzea?**

Guraso batek bere umeak ditu guztiak. Hor arazoa sortzen da. Baina nik uste dut umea aurrera joan ahala gurasoek erabaki behar dutela baserriari zeinek eutsiko dion. Eta hori ahalik eta azkarren egin behar da, gurasoek hartu behar dute konpromiso hori. Gurasoek ezin dute gai hori senideen artean konpontzeko utzi. Gazteen ordua helduko da ondoren, baserriarekin jarraitu edo ez jarraitu erabakitzeak, ezin da gaztea ezertara behartu. Baserriarekin jarraitzeko konpromisua hartzen duenak, ordea, bete egin behar du zeregin hori. Gure etxean azkar hartu zen erabaki hori.

■ **Gainerako senideek ez al dute zerbait merezi?**

Baserritik kanpora urteak pasa eta gero bere zatiaren bila bueltatzen denak ez du baserrian jarraitzeko asmorik. Inork ez du lanik egin nahi. Egungo gizartearen eraginez gauzak edukitzeari ematen zaion garrantziagatik gertatzen da hori.

• Ainhoa Oiarzabal •

Gertatu izan da nor
bait gizaldi osoa
baserri batean lan
ean aritu eta orain
dik berea ez izatea.
Eta erabaki beharra
dago baserriarekin
jarraitu behar du
gun edota
larre guztiak etxetik
beteko ote ditugun.